



BANDA ELASTIKOAK JARRI ONDORENGO GOMENDIOAK

- Dieta likidoa 24 orduz. Ondoren, 2 egunez, trinkotasun likido-oretsuko dieta.
- 20 mg-ko Omeprazol konprimitu bat hartuko duzu 24 orduan behin, 3 egunez.
- Mina izan dezakezu prozeduraren ondoren. Pixkanaka gutxituko da. Lasaitzeko, 1 g paracetamol har dezakezu 8 orduan behin (botika horri alergia ez baduzu).
- Alarma-seinaleak:** odol-gonbitoa, gorozki ilunak, baretzen ez den bularreko mina, sukarra eta irensteko intolerantzia.
- Sintoma hauetakoren bat baduzu, larrialdietara joan beharko duzu.